



Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



EBAZPENA, 2023KO OTSAILAREN 28KOA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZERBITZU OROKORRETAKE ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ ARAUTU EGITEN DA BAI ADMINISTRARI OROKORRAREN BAI ENPLEGU ETA ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUETARAKO ZERBITZU-EGINKIZUNEN SALBUESPENEZKO PROZESUA.

Abenduaren 7ko 147/2022 Dekretuaren bidez (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarena, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailerako eta erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lanpostuen zerrendak onartzen dituzten dekretuak aldatzen dituen), handitu egin da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari atxikitako plaza kopurua.

Bizitzeko Gutxieneke Diru-sarreraren (BGG) eskumenen transferentzia dela-eta, honako plazak beteko dira: Administralari orokorraren 50 plaza, eta Enpleguako eta Enplegurako Prestakuntzako teknikariaren 11 plaza (II eta III. ERANSKINETAN deskribatuak).

Lanpostu horiek zerbitzu-eginkizunen salbuespenezko prozesu horren bidez deituko dira. Izan ere, aurreikusten da eskabide ugari egongo direla, eta hautagai batek lanpostu berdinak eskatu ahal izango dituela destino-zentro desberdinetan.

Ezohiko prozesu honek bi helburu ditu: lehenengoa, batera izapidetzea bai Administralari Orokorraren bai Enplegu eta Enplegurako Prestakuntzako Teknikariaren plazen deialdiak; eta bigarrena, prozedura bat ezartzea, zerbitzu-eginkizunak ahalik eta denbora gutxienean ebazteko eta aldi berean esleitzeko.

Salbuespenezko prozesu honetan parte hartzen dutenek esleitutako lanpostuaz jabetu beharko dute, baldin eta atzera egiteko epea amaitu baino lehen prozesuan atzera egiten ez badute, eta beren merezimendu eta lehentasunen arabera behin betiko esleipendunak baldin badira.

Karrerako funtzionarioek zein lan-kontratuko langile finkoek, uko egiten badiote eta lanpostuan sartzen ez badira, 12 hilabete itxaron beharko dute deialdi berrietan parte hartzeko. Gainera, aipatu langileek galdu egingo dute parte hartzen duten zerbitzu-eginkizunetako edo aldi baterako mugikortasuneko lanposturako atxikipena. Eta beren titulartasuneko plazara itzuliko dira.

Bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako lan-kontratuko langileek lanpostuari uko egiten badiote, izendapen-lanpostua galduko dute. Eta 12 hilabetez egongo dira "hautaezin" egoeran osatzen dituzten lan-poltsa guztietan.

Aginduzko txostenak egin ondoren; eta bat etorrita, batetik, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Aginduekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko prozedura arautzen duena); bestetik, Gobernu Kontseiluaren 2015eko urriaren 13ko Erabakiarekin (Erabaki horren bidez, EAEko Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileen mahai sektorialaren akordioa onartu zen. Halaber, akordioak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoko langileen alderdi espezifikoak arautzen ditu); eta, azkenik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuen 13. artikuluko a) letran xedatutakoarekin (Maiatzaren 22ko 82/012 Dekretuaren bidez onartu ziren estatutu horiek. Eta ekainaren 29ko 156/2021 Dekretuaren eta abuztuaren 30eko 98/2022 Dekretuaren bidez aldatu ziren).

Horretan guztietan oinarrituta, ondokoa

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- I. eranskinean ezarritako salbuespenezko prozedura arautzea. Prozedurak xede du Administrazi Orokorreko 50 plaza gehi Enpleguko eta Enplegurako Prestakuntzako 11 plaza betetzea zerbitzu-eginkizunen bidez. Plazak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren abenduaren 7ko 147/2022 Dekretuaren bidez sortu ziren. Halaber, dekretu horren bidez, EAEko Administrazioko sailetakoko eta erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lanpostuen zerrendak onartzen dituzten dekretuak aldatu ziren.

BIGARRENA.- 5 egun balioduneko epea irekitzea, II. eta III. eranskinetan zerrendatutako plazak eskatzeko. Epea ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean hasten da.

HIRUGARRENA.- Jakinarazpenen ondoreetarako, **agintzea ebazpen hau 2023ko otsailaren 28an argitaratzeko**, honako helbideetan:

Internet: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Intranet: Enpleguaren ataria/jakina

Intranet: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ataria

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailak 28



José A. Carrillo Navas
Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuko Zerbitzu Orokorretako Zuzendaria

I. ERANSKINA

1.- Xedea.

Prozedura bat ezartzea administrari orokorreko 50 plaza gehi enplegurako prestakuntzako eta enpleguko teknikari izateko 11 plaza betetzeko, zerbitzu-eginkizunetan. Plazak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren abenduaren 7ko 147/2022 Dekretuaren bidez sortu ziren. Prozeduran hurrengoak arautuko dira:

- Deialdiak batera argitaratzea.
- Lehentasunak antolatzea.
- Behin-behineko esleipena.
- Atzera egiteko gehienezko epea.
- Uko egitearen ondorioak
- Deitutako lanpostuen behin betiko esleipenak eta jabetza-hartzeak.

2.- Eremu objektiboa.

Prozedura honetan, ebazpenaren II. eta III. eranskinetan zehaztutako plazak deituko dira: alegia, Administrari Orokorraren 50 plaza gehi Enplegu eta Enplegurako Prestakuntzako teknikariaren 11 plaza (guztiak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari atxikituak). Plazak zerbitzu-eginkizunen bidez bete beharko dira (horrela zehazten baitu Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Aginduak).

Administrari Orokorraren lanpostuak (C1/C2) honako eskala hauetara irekita daude:

- Administrazio-eskala
- Administrari laguntzaileen eskala.

Enpleguko eta Enplegurako Prestakuntzako (A1/A2) teknikarien plazak honako eskala hauetara irekita daude:

- Arreta Soziolaboraleko Eskala Fakultatiboa
- Administrazio goi-mailako eskala
- Giza Baliabideen eta Prestakuntzaren Eskala Fakultatiboa
- Administrazio-kudeaketako eskala
- Arreta Soziolaboraleko Eskala Teknikoa

3.- Eremu subjektiboa.

Zerbitzu-eginkizunen prozedura honetan honako kolektibo hauek parte hartu ahal izango dute:

- Karrerako funtzionarioek (deitutako lanpostua irekita dagoen edozein eskalatan izendatutakoek)
- Karrerako funtzionarioek (azpitalde bereko edozein eskalatan edo deitutako lanpostua baino beheragoko hurrengo talde edo azpitaldeko edozein eskalatan izendatutakoek), baldin eta beharrezko titulazioa badute.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko lan-kontratuko langileek (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoko langileen alderdi espezifikoak arautzen dituen EAEko Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileen mahai sektorialaren akordioa onartzen duen Gobernu Kontseiluaren 2015eko urriaren 13ko Erabakian ezarritako baldintzetan).
- Bitarteko funtzionarioek (deitutako lanpostua irekita dagoen edozein eskalatan izendatutakoek)

4.- Eskabideak.

Hauxe da eskabideak aurkezteko epea: **2023ko martxoaren 1etik martxoaren 7ra (biak barne).**

Eskabideak bide elektronikoz aurkeztuko dira, helbide honetan:

Intranet: Enpleguaren ataria/Jakina.

Intranet: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ataria

Langileak Intraneterako sarbiderik ez badu, eskabidea internet bidez ere egin ahalko du:

<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Horretarako, PIN bat eskatu beharko du helbide honetan:

pin.masivas@lanbide.eus

Mezuko gaian hauxe idatzi behar da: "BATZORDE MASIBOETARAKO PINa". Eta bertan datu hauek bidali behar dira: izen-abizenak, IFZ eta helbide elektronikoa (PINa bidaltzeko).

Eskabideak aurkezteko epean zehar, langileak nahi adina plaza eskatu ahalko ditu; baina plazak lehentasun-hurrenkeraren arabera ordenatu beharko ditu (izapidetzen den eskabide bakoitzean); beti ere araudian aurreikusitako baldintzak betetzen baditu.

Interesdunak eskaeraren jaso izanaren agiria inprimatu ahalko du. Bertan adieraziko dira: alegatu dituen datu guztiak, eskatutako plazak (eta hurrenkera), gehi eskaeraren egoera.

Eskaera baliozkoa izango da soilik plaza guztiak ordenatu, eta ordena hori onartu ondoren. Behin izapide hori amaituta, hautagaiak, aldaketarik egin nahi badu, egindako eskaera baliogabetu eta beste bat egin beharko du.

5 eguneko epean, eskabidea nahi adina aldiz aldatu eta/edo baliogabetu ahal izango da. Baina soilik izango da baliozkoa egindako azken eskabidea (Itxita egoera duena). Horretarako, grabatutako azken eskaera hartuko da kontuan (dataren eta orduaren arabera).

Behin epe hori amaitu eta gero, ezingo da hurrenkera aldatu.

5.- Prozesuari buruzko informazioa.

Behin eskaera onartu ondoren, langileak prozesuko informazioa eta izapideak eskuratu ahalko ditu intranet/internet helbideen bidez (ebazpenaren 4. oinarrian ezarriak). Baina, horretarako, beharrezkoa da beste PIN baten bidez identifikatzea.

Bigarren PIN hori automatikoki bidaliko da posta elektronikoko bidez (langileak eskabidean ezarritako helbide elektronikora). Eta bidaliko da deitutako plazak antolatzeke fasea ireki aurretik (7. oinarrian ezarritakoaren arabera).

6.- Merezimenduen balorazioa.

Deialdi honetan, deitutako lanpostuen bi zerrendak argitaratuko dira; EAEko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan edo bitarteko funtzionario gisa aldi baterako betetzeko prozeduran aplikatu beharreko baremoak ezartzen dituen Funtzio Publikoaren sailburuordearen 2002ko otsailaren 26ko Ebazpenean merezimenduak baloratzeko erabilitako baremoaren arabera:

1. Administrazi Orokorreko lanpostuak aldi baterako betetzeko prozeduran, ebazpen horren 3. eranskinean ezarritako baremoa aplikatuko da.
2. Enplegu eta Enplegurako Prestakuntzako teknikarien lanpostuak aldi baterako betetzeko prozeduran, ebazpen horren 2. eranskinean ezarritako baremoa aplikatuko da.

Langileen Erregistroan agertzen diren merezimenduak **alegatutzat** joko dira (**salbu eta beste administrazio publiko batzuetan izandako esperientzia**). **Esperientzia hori beti alegatu beharko da** (hirurtekoen ondorioetarako aitortua izan arren) eta kasu honetan ez da beharrezkoa izango egiaztatzea.

Merituak erregistroan agertzen ez badira, izangaiek **eskabidean alegatu beharko dituzte, eta eskabideak aurkezteko epean egiaztatu**, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan.

7.- Bi deialdietan parte hartzen duten hautagaientzako plazak antolatzea

Bi deialdietako plazetan parte hartzen duten bai karrerako funtzionarioek bai lan-kontratuko langile finkoek lanpostuak esleitzeko eskatutako plaza guztiak ordenatu beharko dituzte.

Horretarako, **Zerbitzu Orokorretako Zuzendariaren ebazpen bidez, 3 egun balioduneko epea irekiko da, merezimenduak baloratu aurretik. Helburua da bi deialdietan eskaerak egin dituzten langileek aukeratutako lanpostuak ordenatzea.**

Antolamendu-eskaerak ere izapidetuko dira eskaerak egiteko erabiltzen diren aplikazioen bidez.

Bi deialdietan deitutako plazen hurrenkera bakarrik hautatu ahal izango da. Hau da, eskaera bakar batean tartekatuko dira bi eskaeren plazak, baina hasierako ordena aldatu gabe.

Interesdunak ordenazio-eskaeraren jaso izanaren agiria inprimatu ahalko du. Bertan adieraziko dira: onartutako plazak eta horien hurrenkera. Izapide hori soilik emango da amituatzat eta beraz, eskaera baliozkotzat joko, plaza guztiak ordenatu eta ordena hori onartu ondoren. Une horretan, hartu-agiri hori inprimatu ahal izango da.

Hiru eguneko epean ordena aldatu ahal izango da nahi beste aldiz, baina egindako azken ordenazioak bakarrik izango du balioa. Horretarako, grabatutako azken eskaera hartuko da kontuan, dataren eta orduaren arabera.

Behin epe hori amaitu eta gero, ezingo da hurrenkera aldatu.

Eskaera ezarritako epean izapidetzen ez bada, plazak ofizioz antolatuko dira. Eta lehentasuna hartuko dute Enpleguko eta Enplegurako Prestakuntzako teknikariaren plazek (administrari orokorraren gainetik).

8.- Esleipenen behin-behineko zerrenda argitaratzea.

Baldintzak betetzen direla egiaztatuko ondoren eta plazen ordenamendua bukatu eta gero, merezimenduak baloratuko dira. Horren ostean, jakinarazpen-ondorioetarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzak 4. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko ditu behin-behineko esleipenak. Eta 5 egun balioduneko epea emango du interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten.

9.- Atzera egiteak.

Prozesuko parte hartzaileek edozein unetan atzera egin ahalko dute, betiere lanpostua behin betiko esleitu aurretik (esleipenen behin-behineko zerrendaren erreklamazioetarako ezarri den 5 eguneko epean). Hori izango da parte hartzen duten langileek prozesuan parte hartzeko eskaeran atzera egiteko azken epea.

Atzera egiteak eragingo dio aipatzen den eskaera osoari.

Epe hori baino lehen parte hartzen dutenek eta atzera egiten ez dutenek behin betiko esleipendunak izango dira, beren merezimendu eta lehentasunen arabera, eta esleitutako lanpostuaz jabetu beharko dute. Lanpostuan ez sartzeari uko egitetzat hartuko da, 10. oinarrian jasotako ondorioekin.

Behin-behineko esleipenean esleipendun izan ez arren, behin betiko esleipenean plaza lortu dutenei ere aplikatuko zaie. Epearen barruan atzera egitea erabaki ez bazuten, plazaren esleipena ere ukaezina izango da eta, beraz, lanpostuaz jabetu beharko dute.

10.- Uko egitea.

Uko egiten bazaio eta lanpostura itzultzen ez bada:

- **Karrerako funtzionarioek eta lan-kontratuko langile finkoek 12 hilabete itxaron beharko dute deialdi berrietan parte hartzeko, eta parte hartzen duten zerbitzu-eginkizunetako edo aldi baterako mugikortasuneko lanposturako atxikipena galduko dute, eta beren titulartasuneko lanpostura itzuliko.**
- **Bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako lan-kontratuko langileek uko egiten badiote, izendapen-lanpostua galduko dute eta 12 hilabetez hautaezin egoeran egongo dira, osatzen dituzten lan-poltsa guztietan.**

11.- Baterako esleipena eta lanpostuaz jabetzea.

Jakinarazpen-ondorioetarako, Lanbide-Euskal Zerbitzuko Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak **lanpostu bakoitzean parte hartzen duten langileen zerrendak argitaratuko ditu (gehi onartutako langileentzako merezimenduen balioespena, eta eskatutako plaza bakoitzean lortutako hurrenkera; eta, hala badagokio, ez esleitzeko edo baztertze arrazoia).**

Esleitutako lanpostuen jabetza-hartzeak lanpostuen behin betiko esleipena argitaratu eta 10 egunera egingo dira.

Data hori aldatu ahal izango da antolaketa-arrazoiengatik edo arrazoi pertsonalengatik, betiere aldez aurretik Zerbitzu-Zuzendaritzaren eta langile esleipendunen artean adostuta.

II ERANSKINA. Administrari orokorreko 50 dotazio

Lanpostuaren Kodea/Dot.	Lanpostuaren izena	HE-DD	C.E.	Kokapena- Lanbideko Zerbitzu Zentraletan – Gasteiz
520040/950	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/951	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/952	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/953	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/954	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/955	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/956	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/957	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/958	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/959	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/960	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/961	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/962	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA

520040/963	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/964	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/965	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/966	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/967	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/968	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/969	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-B	Prestazioen Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA
520040/919	Administrari orokorra	2HE/ DD gabe	VI-C	Inklusioaren Zerbitzua PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA

Lanpostuaren Kodea/Dot.	Lanpostuaren izena	HE-DD	C.E.	Kokapena- Lanbideko toki-bulegoak
520040/920	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Vitoria-Gasteiz Zumakera
520040/921	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Vitoria-Gasteiz Salburua
520040/922	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Vitoria-Gasteiz Salburua
520040/923	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Vitoria-Gasteiz Zabalgana
520040/924	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Vitoria-Gasteiz Zabalgana
520040/925	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Vitoria-Gasteiz Zaramaga
520040/926	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Azpeitia
520040/927	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Eibar
520040/928	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Arrasate-Mondragón
520040/929	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Errenteria
520040/930	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Donostia-San Sebast. Gros

520040/931	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Donostia-SS Intxaurreondo
520040/932	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Tolosa
520040/933	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Barakaldo Beurko
520040/935	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Basauri Uribarri
520040/936	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Bilbao Rekalde
520040/937	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Bilbao Mazarredo
520040/938	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Bilbao San Inzaio
520040/939	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Bilbao Txurdinaga
520040/940	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Bilbao Miribilla
520040/941	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Bilbao Miribilla
520040/942	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Durango
520040/943	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Mungia
520040/944	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Portugalete
520040/945	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Santurtzi
520040/946	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Santurtzi
520040/947	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Sestao
520040/948	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Zalla
520040/949	Administrari orokorra	2 HE 2022/09/23	VI-B	Zalla

III. ERANSKINA. 11 plaza, Enplegurako eta Formakuntzarako teknikaria (C.E. III-C)

Lanpostuaren Kodea/Dot.	HE-DD	ZUZENDARITZA	Zerbitzua
510200/223	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Prestazioen Zerbitzua
510200/224	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Prestazioen Zerbitzua
510200/225	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Prestazioen Zerbitzua
510200/226	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Prestazioen Zerbitzua
510200/227	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Prestazioen Zerbitzua
510200/228	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Prestazioen Zerbitzua
510200/230	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Prestazioen Zerbitzua
510200/231	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Prestazioen Zerbitzua
510200/232	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Prestazioen Zerbitzua
510200/234	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Inklusioaren Zerbitzua
510200/235	3HE-2022/09/23	PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARITZA	Inklusioaren Zerbitzua